



MUTURREKO FENOMENO METEOROLOGIKOEI BURUZKO ABISUA 6646/2026 Zkia

Sortutako data eta ordu lokala: 2026/01/08, 10:30.

Informazioaren eguneratze data eta ordu lokala: 2026/01/08, 19:30
(baldin eta lehenago egitea premiazkoa ez bada).

◆ Zergatia:

Abisu Horiaren Amaiera: Muturreko tenperatura baxuak/lzotza
Haizea: haizeguneetan
Itsasaldeko Arriskua: Nabigazioa lehenengo bi milietan
Itsasaldeko Arriskua: Zipriztinak
Elurra: Prezipitazioa elur moduan 1000 m-tik Behera

◆ Muturreko Fenomenoen Iragarpena:

Osteguna, hilak 8:

- Amaitu da abisu horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 15etatik 24etara ordu lokala.

Hego-mendebaldeko haize-boladek haizeguneetan 100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete, bereziki mendebaldeko mendi inguruetan. Bestalde, haizeguneak ez diren lekuetan, haize-boladak 60-80 km/h ingurukoak izan daitezke, bereziki Araban.

Ostirala, hilak 9:

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 03etatik 09etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 3.5 m-tik azkar igoko da 4-5 m artean kokatu arte. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoa igotzen joango da 3 m inguruko olatuak altxatu arte. Olatuen arteko periodoa: 12 s. Mendebaldeko haizea ibiliko da 6-7ko indarrarekin. Itsaso zakarra edo oso zakarra eragingo du.

- Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 09etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 5-6 m artean koka daiteke. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-4 m arteko olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 12 s. Mendebal/ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da 6-7ko indarrarekin, 8ko tarteekin. Itsaso zakarra edo oso zakarra eragingo du.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Olatuen zipriztinak 09etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen ezaugarrien eta mendebal/ipar-mendebaldeko haize zakarraren ondorioz, pasealeku eta malekoietan zipriztin eta olatu-zaparrak erori daitezke.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 06etatik 24etara ordu lokala.

Haizeguneetan mendebaldeko haize boladek 100 km/h-ko abiadura gaindi dezake, bereziki kostaldeko haizeguneetan eta egunaren Erdiko orduetan. Bestalde, Bizkaia eta Gipuzkoako haizeguneak ez diren lekuetan, mendebaldeko haize boladak 80 km/h ingurukoak izan daitezke, bereziki kostaldetik gertu gelditzen diren lekuetan eta egunaren Erdiko orduetan. Arabako haizeguneak ez diren lekuetan haize boladak 50-70 km/h ingurukoak izan daitezke.

- Abisu Horia elurragatik barnealdean 12etatik 24etara ordu lokala.



Elur-kota jaisten joango da, eguerdi aldera 1000 m inguruan egon daiteke eta 700-800 m gauean. Prezipitazio txiki-ertaina egingo du, egunaren bigarren partean ugariagoak eta orokorrak izango dira eta Kantauri isurialdean baliteke iraunkorrak izatea. Baliteke arratsaldean eta gauean Kantauri isurialdean trumoi-ekaitzak jotzea.

Aurreikusitako lodierak: 2-15 cm 1000 m-ra, 0 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.

Larunbata, hilak 10:

- Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 12etara ordu lokala.

Elur-kota 700-800 m inguruan egongo da, goizean igo eta eguerditik aurrera 1000 m-tik gora kokatuko da. Prezipitazio txiki-ertaina egingo du, ugariago Kantauri isurialdean eta egunaren lehen zatian; orduan zenbait tokitan euria ugaria eta iraunkorra izan daiteke. Gauean atertzera egingo du.

Aurreikusitako lodierak: 2-15 cm 1000 m-ra, 0 cm 600 m-ra, 0 cm 200 m-ra.

- Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 00etatik 06etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria baliteke 5 m-tik gora kokatzea. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-4 m arteko olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 12 s. Mendebal/ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da 6-7ko indarrarekin. Itsaso zakarra edo oso zakarra eragingo du.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Olatuen zipriztinak 00etatik 06etara ordu lokala.

Olatuen ezaugarrien eta mendebal/ipar-mendebaldeko haize zakarraren ondorioz, pasealeku eta malekoietan zipriztin eta olatu-zaparrak erori daitezke.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 06etatik 21etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 4-5 m artean kokatuko da eta egunean zehar jaisten joango da gauean 3.5 m inguruan kokatu arte. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-4 m arteko olatuak altxatuko ditu eta egunean zehar 2.5-3 m artera jaitsiko da. Olatuen arteko periodoa: 12 s. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da 6ko indarrarekin eta arratsaldean 5eko indarrera jaitsiko da. Itsaso zakarra eragingo du eta arratsaldean itsaski handira jaitsiko da.

◆ Behatutako Muturreko Fenomeno Meteorologikoak:

Goizaldean neurtutako tenperatura minimoak (°C):

Subijana: -0.9

Herrera: -0.3

Espejo: -0.2

Salvatierra: -0.1

Sigue la información en Twitter- Informazioa Twitter-en jarraitu.

@112_SOSDeiak @Euskalmet